


GRADUKO TITULUAK 2010/11



JAKINTZA-ADARRA:

OSASUN ZIENTZIAK

Gradu guztiak oraindik egiaztatu gabe daude

Azken aldaketak: 2009ko azaroak 3

Ikasleen Errektoreordetza / Vicerrectorado de Alumnado

Ikasleentzako Argibide Zerbitzua / Servicio de Orientación Universitaria

AURKIBIDEA

JAKINTZA-ADARRA: OSASUN ZIENTZIAK

Erizaintzako Gradua	
- Leioako Erizaintzako Unibertsitate Eskola	5
- Donostiako Erizaintza Unibertsitate Eskola	9
Farmaziako Gradua	
- Farmazia Fakultatea	13
Giza Elikadurako eta Dietetikako Gradua	
- Farmazia Fakultatea	17
Medikuntzako Gradua	
- Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	21
Odontologiako Gradua	
- Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	25
Psikologiako Gradua	
- Psikologiako Fakultatea	29
ERANSKINA: Unibertsitatean sartzeko probaren fase espezifikoko modalitateko gaitan lortutako kalifikazioak haztatzeko parametroak. 2010/11 ikasturtea	32

OHARRA:

Eskuliburu honetan agertzen diren euskarazko irakasgaien izenak ez dira behin betikoak.

ERIZAINZAKO GRADUA

Leioako Erizaintzako Unibertsitate Eskola

www.enfermeria-leioa.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Zainketa orokorren arduradunak izango diren erizainen prestakuntzak honako ezagutza eta gaitasunak lortu direla bermatzen du:

- Erizaintza orokorraren oinarrian dauden zientzien ezagutza egokia; pertsona osasuntsu zein erien egitura, funtzio fisiologikoak eta jokoerak; gizakiaren osasun egoeraren eta bere ingurune fisiko eta sozialaren artean dagoen harremana;
- Lanbidearen izaera eta etikaren ezagutza zabala, baita osasunaren eta erizaintzaren printzipio orokorrak eta esperientzia kliniko nahikoa ere.
- Esperientzia hauek gaixoari erizaintzako zainketak egiteko egokiak diren lekuetan burutuko dira (bai langile kalifikatuak dituelako bai ekipoak ugariak direlako). Gainera, erizain gaituen gidaritzapean egingo dira;
- Osasun langileen prestakuntza praktikoan parte hartu eta eurekin lan egiteko aukerarekin. Horretaz gain, osasun sektorean diharduten bestelako lanbideekin ere lan egiteko esperientzia edukiko dute.

SARRERAKO PROFILA

Erizaintzako Graduko titulaziora sartu nahi duen guztiak, honako baldintzak bete behar ditu:

- Osasun eta Natur Zientzietan prestakuntza sakona.
- Norberaren eta, oro har, pertsonen osasuna zaintzeko interesa erakustea.
- Taldean lan egiten jakitea (besteen alboan eta besteekin), pertsonetikiko laguntza eta harremanetarako jarrera irekia erakutsiaz.
- Egoera berrietara egokitzeko gaitasuna izatea, izan ere, bere zeregin profesionalean etengabeko aldaketak jazoko dira.
- Ekimenak aurrera eramane eta ardura erakustea; beti ere, zaintzen dituen pertsonen baloreak nahiz kultura errespetatu eta ikaskuntza autonomo eta arduratsua posible eginaz.
- Lan egiteko eta ingurunea zein norbere burua behatzeko ahalmena izatea. Modu horretan, estresa sorrazten duten egoera guztiei aurre egin ahalko die.
- Idatziz nahi hitzez emandako aginduak hausnartzeko, aztertze, gogoeta kritikoa egiteko, ulertze eta aurrera eramateko ahalmena izatea.
- Psikomotrizitate aldetik koordinazio egokia izatea.
- Komeni da EAEn ofiziala ez den hizkuntzaren bateko oinarrizko ezagutzak izatea.
- Ordenagailua eta teknologia berriak erabiltzeko abileziak eduki behar dira erabiltzaile mailan.

IKASKETEN ANTOLAKETA

Kurtsoak	Kredituak						GUZTIRA
	Oinarrizko Formakuntza	Beste adarrekoa	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Kanpoko Praktikak	Gradu Amaierako Lana	
1.	30	18	6		6		60
2.	6	6	36		12		60
3.			22	18	20		60
4.					54	6	60
GUZTIRA	36	24	64	18	92	6	240

Erizaintzako Gradua 3 modulu nagusitan egituratuta dago. Honako hauek hain zuzen ere:

- **Oinarrizko modulua** (60ECTS).
- **Erizaintza Zientzien modulua** (64 ECTS + 18 ECTS hautazkoak) Eskolak 36 kreditu eskaintzen ditu ingelesez.
- **Gidaritzapeko praktiken eta gradu-amaierako lanaren modulua** (92 ECTS praktikoak + 6 ECTS gradu-amaierako lana).

Ikasketa-plana 20 irakasgaiez osatua dago, prestakuntza-prozesuan zehar banatuak. Gainera, prestakuntza sendotzeko asmoz, ikasleek praktiken moduluak egin behar dituzte. Praktika hauek lehenengo hiru mailatan egiten dira, urtero modulu bana alegia. Helburua da ikasleak sakontasunez ezagutzea lan egingo duten errealitate sanitarioa. Bestalde, laugarren mailan practicum eta gradu-amaierako lana egin behar dituzte.

Gradu-amaierako lan hau laugarren mailako bigarren lauhilekoan egin eta defendatu beharko du ikasleak eta gaitasun orokorrak ebaluatzerazuzenduta dago. Halaber, gaitasun espezifikoak integratzeko duen gaitasuna ere neurtuko da.

Ikasketak 4 urtekoak dira eta ECTS kredituak modu honetan banatzen dira:

Oinarrizko gaiak: 60 ECTS

Nahitaezkoak: 92 ECTS

Kanpoko praktikak: 92 ECTS

Gradu-amaierako lana: 6 ECTS

Hautazkoak: 18 ECTS

Kredituak guztira: 240 ECTS

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Lehenengo maila

Lehenengo lauhilekoa:

- Giza Gorputzaren Egitura eta Funtzioa I: 6 ECTS
- Giza Gorputzaren Egitura eta Funtzioa II: 6 ECTS
- Osasun Publikoa: 6 ECTS
- Osasun Zainketei Aplikatutako Zientzia Psikosozialak 6 ECTS
- Informazio Sistemak eta Datuen Analisia: 6 ECTS

Bigarren lauhilekoa:

- Giza Gorputzaren Egitura eta Funtzioa III: 6 ECTS
- Patologiari Lotutako Oinarrizko Zainketak: 6 ECTS
- Erizaintzaren Oinarri Teorikoak: 6 ECTS
- Antropologia, Etika eta Legeria: 6 ECTS
- Kanpoko praktikak: 6 ECTS

Bigarren maila

Hirugarren lauhilekoa:

- Farmakologia: 6 ECTS
- Harremana eta Komunikazioa Zainketetarako: 6 ECTS
- Erizaintzaren Oinarri Metodologikoak: 6 ECTS
- Erizaintza Klinikoa I: 6 ECTS
- Erizaintza Bizi-zikloan I: 6 ECTS
- Kanpoko praktikak: 6 ECTS

Laugarren lauhilekoa

- Erizaintza Klinikoa II: 6 ECTS
- Elkarte Mailako Erizaintza: 6 ECTS
- Erizaintza Bizi-zikloan II: 6 ECTS
- Kanpoko praktikak: 6 ECTS

Hirugarren maila

Bosgarren lauhilekoa:

- Erizaintzako Zainketen Gestioa: 6 ECTS
- Erizaintza Klinikoa III: 6 ECTS
- Erizaintza Klinikoa IV: 10 ECTS
- Kanpoko praktikak: 20 ECTS

GRADUATU PROFILA

Erizaintzako graduatua, aipatutako gaitasunak lortzeaz gain, kapaz izango da laguntzazko erakundeen lantalde profesionalekin elkarlanean aritzeko eta baita informazio sanitarioko sistema ezagutzeko ere. Edozelan ere, lan-munduan agertu daitezkeen egoerak anitzak direnez, premiazkoa da entzuten jakitea, behar den kasuetan bideratzen jakitea eta errespetu eta konfidentziasunari arreta berezia jartzea.

LANERATZEA

Erizaintzak **lanpostuak sortzeko gaitasun handia du** eta Europako ratioetara heldu arte gehitzen joan behar da. Klase-sindikatu batek (SATSE, 1999) Erizaintzako enpleguaren inguruan egindako azterketa bati jarraiki, Espainian biztanle bakoitzeko 226,2 erizaintzako profesional daude. Gure erkidegoan antzeko ratio bat daukagu. 2003ko titulatuaren promozioari egindako Lan-munduaren Txertatze inkestaren datuek diotenez, Erizaintzako titulatuak aldeko egoera dute lana lortzeko. Zehazki, UPV/EHUk 22 titulazio aztertu zituen eta Erizaintza 7. postuan agertu zen. Titulatuaren %98 lanean ari zela eta lehenengo lanpostua hiru hilabete baino lehen lortu zutela ere esaten zen. Horrez gain, euren soldata batezbestekoarena baino altuagoa zen. Leioako Erizaintzako Unibertsitate Eskolak 2006ean egin zuen lana lortu zuten titulatuari buruzko azterketa bat (Exodus). Bertan esaten da titulatuaren %60ak ikasketak amaitu zituenetik hilabete baino gutxiago behar izan zuela lana aurkitzeko. Bi dokumentuetako informazioa aintzat harturik, frogatua geratzen da Erizaintzako titulatuaren %90 osasun-arloan ari dela lanean. Infoempleo (2005) dokumentuan jasota daude Euskal Autonomia Erkidegoko datuek diotenaren arabera, Erizaintza da eskarmenturik gabeko titulatuak eskatzen dituztenen artean bosgarren postua betetzen duena. Halaber, lan-eskaintzaren %2,09 eta titulatuaren eskaintzaren %3,37 erizaintzako da. Titulazio berriekin ere gauza bera gertatuko dela espero da, kontuan izanda gure ikastegira heltzen diren erizainen eskaerak. Eskaera hauek gure web orrian argitaratzen dira.

EZARPEN KRONOLOGIA

- 1. maila:** 2010/2011
- 2. maila:** 2011/2012
- 3. maila:** 2012/2013
- 4. maila:** 2013/2014

ERIZAINZAKO GRADUA

Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskola

www.enfermeria-donostia.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Erizaintza Graduko ikasketek erizain gisa lan egiteko beharrezko prestakuntza eta orotariko zainketak eskaintzen dizkiote ikasleari.

SARRERAKO PROFILA

Ikasle berriek Natura eta Osasun Zientzietako prestakuntza sendoa **eduki** beharko dute, osasun-zainketen gaineko interesa eta motibazioa **erakutsi** beharko dituzte, eta laguntzarako eta pertsonen arteko harremanetarako gertutasun zabala eduki beharko dute. Horrez gain, behaketarako, analisirako eta gogoeta kritikorako ahalmena **eduki** beharko dute, eta ahozko nahiz idatzizko jarraibideak ulertzeko eta betetzeko erraztasunaz gain, koordinazio psikomotor egokia eduki beharko dute. Estres handiko egoerei aurre egin ahal izateko, lanerako, autokontrolerako eta auto-behaketarako gaitasun handia **eduki** beharko dute. Ingurune aldakor batera egokitzeko **gai izan**, aurrea hartzeko gaitasuna eta ardura erakutsi, eta aldi berean, kultura-balioak eta -desberdintasunak errespetatu beharko dituzte.

IKASKETEN ANTOLAKETA

Kurtsoak	Kredituak						
	Oinarrizko Formakuntza	Beste adarrekoa	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Kanpoko Praktikak	Gradu Amaierako Lana	GUZTIRA
1.	30	18	6		6		60
2.	6	6	36		12		60
3.			22	18	20		60
4.					54	6	60
GUZTIRA	36	24	64	18	92	6	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskolak euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen du titulua.

LEHENENGO MAILA			
Lehenengo sei hilekoa		Bigarren sei hilekoa	
IRAKASGAIA	ECTS	IRAKASGAIA	ECTS
Giza gorputzaren egitura eta funtzioa I	6	Giza gorputzaren egitura eta funtzioa III	6
Giza gorputzaren egitura eta funtzioa II	6	Oinarrizko zainketak. Patologia	6
Osasun Publikoa	6	Erizaintzako Oinarri Teorikoak	6
Osasun-zainketei aplikatutako zientzia psikosozialak	6	Antropologia. Etika eta legedia	6
Informazio-sistemak eta datuen analisia	6	PRAKTIKAK	6
guztira	30	guztira	30

BIGARREN MAILA			
Hirugarren seihilekoa		Laugarren seihilekoa	
IRAKASGAIA	ECTS	IRAKASGAIA	ECTS
Farmakologia	6	Erizaintza Klinikoa II	6
Zainketarako harremana eta komunikazioa	6	Erkidegoko erizaintza	6
Erizaintzaren oinarri metodologikoak	6	Bizi-zikloaren erizaintza II	6
Erizaintza Klinikoa I	6	PRAKTIKAK	12
Bizi-zikloaren erizaintza I	6		
guztira	30	guztira	30
HIRUGARREN MAILA			
Bosgarren seihilekoa		Seigarren seihilekoa	
IRAKASGAIA	ECTS	IRAKASGAIA	ECTS
Zerbitzuetako zainketen kudeaketa	6	Euskararen araua eta erabilera Komunikazioa euskaraz: osasun arloa	18 (elegir 3)
Erizaintza Klinikoa III	6	Arreta bizitzaren amaieran eta kronikotasuna	
Erizaintza Klinikoa IV	10	Zainketen kalitatea eta segurtasuna Droga-mendekotasunak eta erizaintza-arreta	
		Proiektuen lantzea erizaintzan Osasuna, gaixotasuna, kultura eta zainketa Erizain-praktika terapia ez-konbentzionaletan	
PRAKTIKAK	8	PRAKTIKAK	12
guztira	30	guztira	30
LAUGARREN MAILA			
Zazpigarren seihilekoa		Zortzigarren seihilekoa	
IRAKASGAIA	ECTS	IRAKASGAIA	ECTS
PRAKTIKAK	27	PRAKTIKAK	27
Gradu Amaierako Lana			6
guztira			60

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Donostiako EHUko Erizaintza Eskolak honako hitzarmen hauek ditu Espainiako eta atzerriko unibertsitateekin, **SICUE, ERASMUS eta EHU-LATINOAMERIKA** programetako ikasleak trukatzeko: Rovira I Virgili Unibertsitatea, Jaengo Unibertsitatea.

CONFEBASKek, Europako Erasmus Programako Diru-laguntzen Deialdiaren barruan, **Eurolanen Erasmus 08** proiektua jarri du martxan, Euskal Herriko Unibertsitatean matrikulatutako ikasle unibertsitarioek denboraldi batez Europako enpresetan praktikak egin ahal ditzaten: Istituto Nazionale dei Tumori di Milano

EHU – LATINOAMERIKA programaren barruan: Brasilen: Santa Catarinako Estatuko Unibertsitatea eta Salvador de Bahiako Unibertsitate Federala; Txilen: Pacífico Unibertsitatea, Unibertsitate Pontifize Katolikoa, Garapen Unibertsitatea, Valparaisoko Unibertsitate Pontifize Katolikoa; Bolivian: Beniko Unibertsitate Autonomoa, Jose Ballivia eta Kolonbian: Cundinamarca Unibertsitatea.

PRAKTIKAK

Curriculum honen prestakuntza pertsonalak eta dimentsio anitzeko prestakuntzak graduan integratutako derrigorrezko practicum egitea eskatzen dute. Practicum ikasleak lanbidearen sorospen-testuinguruan (ospitaleak, osasun-zentroak, soziosanitarioak, etab.)

hainbat arlotan sektoreko profesionalekin eta leku errealetan egiten duen prestakuntza-denboraldia da.

Practicumeko prestakuntza diziplinen edukitik hedatzen da eta hazkuntza pertsonal eta profesionalaren espektro zabalago eta dimentsioaniztun baten gain proiektatzen da.

Horretarako, Eskolak hitzarmenak ditu Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarekin, Zentro Gerontologikoekin eta klinika pribatuekin. Praktikak Gipuzkoako lurralde historikoan egiten dira.

LORTUTAKO GAITASUNAK

Uztailaren 3ko CIN/2134/2008 AGINDUAN jasotako tituluaren gaitasunak honako hauek dira:

- Erizaintza arloan pertsonen osasun-beharretara egokitutako osasun-arreta tekniko eta profesionala eskaintzeko gai izatea, unean uneko ezagutza zientifikoen garapen-egoeraren arabera, eta aplikagarriak diren araudi eta deontologietan ezarritako kalitate eta segurtasun mailekin.
- Pertsoneri, familiei edo taldeei zuzendutako erizaintza-zainketak antolatzea eta eskaintzea, osasun-erretara orientatuta eta beren inpaktua ebaluatuta, eta betiere, osasun-arazo bat diagnostikatzeko, tratatzeko edo zaintzeko prozesuak deskribatzen dituzten praktika klinikoko eta sorospen-praktikako giden bidez.
- Erizaintzako oinarri eta printzipio teoriko eta metodologikoak ezagutzea eta aplikatzea.
- Generoaren, taldearen edo komunitatearen arabera, pertsonaren portaera interaktiboa ulertzea, bere gizarte-testuinguruan eta kultura anitzeko testuinguruan.
- Pertsoneri, familiei edo taldeei zuzendutako zainketa-sistemak diseinatzea, beren inpaktua ebaluatzea eta kasuan kasuko aldaketak egitea.
- Erizaintzako esku-hartzeak ziurtasun zientifikoan eta eskuragarri dauden baliabideetan oinarritzea.
- Pertsoneri arazorik gabe ulertzea, alde fisiko, psikologiko eta sozialak kontuan hartuta; betiere, norbanako autonomo eta independente gisa hartuta, beren iritzi, sinesmen eta balioak errespetatuta, eta isilpekotasunaren eta sekretu profesionalaren bidez, intimitaterako eskubidea bermatuta.
- Artatutako pertsonen erabaki-hartzean parte hartzeko eskubidea, informazioa, autonomia eta adostasun informatua sustatzea eta errespetatzea, beren osasun/gaixotasun prozesua bizitzeko duten moduarekin bat etorruta.
- Aurrea hartzeko portaerak eta portaera terapeutikoak babestuta, bizitza-estilo osasungarriak eta autozaintza sustatzea.
- Artatutako pertsonen, familien edo taldeen osasuna eta ongizatea babestea eta beren segurtasuna bermatzea.
- Gaixoekin, familiarekin, gizarte-taldeekin eta kideekin komunikazio eraginkorra ezartzea eta osasunerako hezkuntza sustatzea.
- Espainiako erizaintzaren kode etiko eta deontologikoa ezagutzea, eta osasunaren inplikazio etikoak ulertzea, transformatzen ari den mundu-testuinguru batean.
- Osasun-finantziarioaren eta finantziario soziosanitarioaren printzipioak ezagutzea eta eskuragarri dauden baliabideak era egokian erabiltzea.
- Ebaluazio-mekanismoak ezartzea, eta alde zientifiko-teknikoak eta kalitatea kontuan hartzea.
- Profesional-taldearekin lan egitea. Oinarrizko unitatea diziplina bakarreko, anitzeko eta diziplina arteko profesionalek eta beste sorospen-erakunde batzuetako langileek osatzen dute.
- Osasun-informazio sistemak ezagutzea.
- Erizaintzako zainketak egitea, osasun-arreta integralean oinarrituta. Horrek lankidetzaren multiprofesionala, prozesuen integrazioa eta sorospen-jarraitutasuna eskatzen du.
- Gaixoaren eta familiaren sintomen errotasun eta arretarako neurriak hartzeko estrategiak ezagutzea, eta gaixo aurreratuen eta terminalen egoera arintzeko zainketa aringarriak aplikatzea.

GRADUATU PROFILA

Erizaintza Gradua eskuratzen duen pertsona norbanakoen, familien eta gizarte taldeen osasun-beharretara egokitutako osasun-arreta tekniko eta profesional egokia emateko gai izango da; betiere, ezagutza integratuan oinarrituta, erizaintzako oinarri eta printzipio teoriko, metodologiko, etiko eta legalak aplikatuta, eta gaixoa norbanako konplexu, autonomo, independente eta arduratsu bezala ulertuta.

Horrez gain, praktika bera ebaluatzeko eta gogoeta egiteko, erabakiak hartzeko, taldean lan egiteko eta beste pertsona batzuekin (gaixoak, familiartekoak, hainbat gizarte-taldetako kideak, lankideak edo beste profesional batzuk) komunikazio eraginkorra edukitzeko gai izango da, beharrezko gaitasun eta teknikak erabilita eta beharrezko baliabideak eraginkortasunez kudeatuta.

Era berean, gizartearekin modu arduratsuan portatzeko gai izango da; betiere, osasunerako eta autozaintzarako hezkuntza sustatuta, eta berrikuntzarekin, ekintzailetasunarekin eta etengabeko hobekuntzarekin konprometituta. Helburua praktika profesional eguneratu, seguru eta kalitateduna eskaintzea izango da.

LANERATZEA

Gure erkidegoak goi-mailako prestakuntza jaso duten profesionalak eskatzen ditu. Osasun arloko arduradunen arabera, plazak betetzeko zailtasunak izaten dituzte, osasun arloko profesional gutxi dagoelako. Datuen arabera, lan-munduan txertatzea %100 ingurukoa da. Etorkizun profesionala honako lan-arlo hauetan egon daiteke:

Enpresa publikoa:

- Administrazio zentrala: kanpo-osasuna, unibertsitate-eskolak.
- Erkidegoko administrazioa: osasun-erakundeak, higiene-kabineteak eta laneko segurtasuna, 3. adinekoentzako zentroak, minusbaliatuentzako zentroak eta adingabekoentzako zentroak.
- Tokiko administrazioa: osasun-laguntzako erakundeak, psikiatrikoak, udal zerbitzu medikoak, osasun sistema nazionala, osasun-erakundeak.

Enpresa pribatua:

- Lan-istripuen mutuak.
- Enpresaren mediku-zerbitzuak.
- Ospitale eta klinika pribatuak.

EZARPEN KRONOLOGIA

Graduaren ezarpena honako sekuentziario honen arabera egingo da:

- 1. maila:** 2010/11
- 2. maila:** 2011/12
- 3. eta 4. maila:** 2012/13

FARMAZIAKO GRADUA

Farmazia Fakultatea

www.farmazia.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Sendagaietan eta hauek osasunean duten eraginean profesional adituak prestatzea.

SARRERAKO PROFILA

Hasierako profil gomendatua Osasun-Zientzia da.

Berriazko profil gomendatua baldintza hauek betetzen dituen ikaslearena da: biologia, kimika, matematika eta fisikako ezagutza orokorrak dituen, eta ezagutza zientifikoarekiko eta osasunarekin lotutako arazoekiko interesa duena.

IKASKETEN ANTOLAKETA

Kredituen banaketa mailaz maila:

Kreditu mota	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	5. maila	Guztira
Oinarrizko gaiak	60	15				75
Nahitaezkoak		45	54	48	18	165
Hautazkoak			6	12	12	30
Kanpo-praktikak					24	24
Gradu amaierako lana					6	6
Kredituak, guztira	60	60	60	60	60	300

TITULAZIOAREN EGITARAUA

Titulazioaren nahitaezko eta hautazko irakasgaiak 8 modulutan daude antolatuta:

Modulua	Irakasgai kopurua		ECTS kredituak	
	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Nahitaezkoak	Hautazkoak
Kimika	7	2	54	12
Fisika eta Matematika	2		15	
Biologia	7	2	46	12
Farmazia eta Teknologia	4	2	35	12
Medikuntza eta Farmakologia	11	4	77	24
Legeria eta Gizarte-Farmazia	2		13	
Praktika Tutelatuak eta Gradu Amaierako Lana	2		30	
Euskararen Plan Gidaria	2	2		12
Guztira	37	12	270	72

Ez da aipamenik irakasten. Bukaeran aurki daiteke irakasgai guztien laburpen-taula, mailaka eta lauhilekoka banatuta.

Nahitaezko irakasgai guztiak euskaraz eta gaztelaniaz irakasten dira, "Gazt." marka daramatenak izan ezik; azken horiek eta hautazkoak gaztelaniaz soilik irakasten dira. Farmazia-Teknologia II irakasgaia ingelesez ere irakasten da.

MUGIKORTASUN-PROGRAMAK

Ikastaldi edo praktika-aldi bat beste herrialde batean edo beste unibertsitate batean egitea modu egokia da ikaslearen heziketa akademiko nahiz pertsonala zabaltzeko. Hartara, Fakultateak mugikortasun-programa hauetako batean parte har dezaten sustatzen ditu ikasleak. Programa bakoitzak bere arauak ditu, eta parte-hartzaileei eskatzen zaizkien baldintzak ere programaren araberrakoak dira.

SICUE/SENECA programan (Espainiako unibertsitateen arteko truke-programan), Fakultateak hainbat plaza ditu Gradu hau irakasten den Espainiako Fakultate gehienetan.

ERASMUS programak, Europako unibertsitateen artean ezarritakoak, herrialde hauetan

eskaintzen ditu plazak gaur egun: Alemania, Italia, Portugal eta Erresuma Batua. Azkenik, **UPV-EHU/AL** programak Latinoamerikako unibertsitateetan egonaldiak egiteko aukera eskaintzen du; gaur egun Argentina, Kolonia, Mexiko edo Txilera joan daiteke, besteak beste.

PRAKTIKAK

Farmaziako Gradua lortzea helburu duten ikasketen izaera esperimentalak dela eta, ikasleek laborategi-, ordenagailu- eta landa-praktiken bidez egin beharko dute nahitaez irakaskuntza osoaren % 25 gutxi gorabehera.

Bestalde, ikasleek kanpo-praktikak ere egin beharko dituzte; Graduaren azken ikasturtean izango dira, sei hilabeteko iraupena izango dute, eta bai farmazia-bulegoetan, bai ospitaletako ospitale-farmaziako zentroetan egin ahal izango dituzte.

Halaber, Gradu Amaierako Lan bat ere burutu beharko dute ikasleek, egindako kanpo-praktikekin loturikoa.

LORTUTAKO GAITASUNAK

- Sendagaien azterketa eta kalitate-kontrola.
- Handizkako sendagaiak biltegiatzea, kontserbatzea eta banatzea.
- Sendagaiei buruzko informazioaren hedapena.
- Gizabanakoari eta biztanleriari sendagaien arloan heziketa, informazioa eta aholkularitza ematea.
- Sendagaien ekoizpena eta kontrola.
- Farmazia-bulego eta ospitaletan (BAFE egin ondoren) sendagaien prestatzea, kontrola, biltegiatzea eta banaketa.
- Sendagaien forma farmazeutikoa prestatzea.

GRADUATU PROFILA

Lan-irteerak:

- Banaketa farmazeutikoa.
- Irakaskuntza.
- Farmazia-establezimenduak (komunitate-farmazia).
- Industria farmazeutikoa, elikagai-industria eta industria kimikoa.
- Ikerkuntza.
- Osasuna (publikoa eta pribatua).

LANERATZEA

Farmazian lizentziaturikoen laneratzeari buruz EGAILANek 2009an argitaratutako azterketaren arabera, nabarmentzekoak dira jarduera- eta enplegu-tasa handiak (% 99 eta % 97, hurrenez hurren), eta langabezia-maila txikia (% 2). Ikasketak amaitzen direnetik lehenengo lanpostua lortu arte 2 hilabete igarotzen dira batz bestean. Azkenik, enplegu bideratua % 100 da.

EZARTZE-KRONOLOGIA

1. maila: 2010/11 ikasturtea; **2. maila:** 2011/12 ikasturtea; **3. maila:** 2012/13 ikasturtea; **4. maila:** 2013/14 ikasturtea; **5. maila:** 2014/15 ikasturtea

FARMAZIAKO GRADUAREN IKASKETA-PLANA

		ECTS kredituak				ECTS kredituak	
1. lauhilekoa	Biologia Zelularra eta Tisularra	6		2. lauhilekoa	Giza Anatomia	6	
	Fisika	6			Landare-Biologia	6	
	Matematika eta Estatistika	9			Biokimika	6	
	Kimika Orokorra eta Ezorganikoa	9			Fisika-Kimika	6	
					Kimika Organikoa	6	
3. lauhilekoa	Kimika Organikoaren Gehipena	6		4. lauhilekoa	Biologia Molekularra	6	
	Giza Fisiologia	9			Biokimika Klinikoa	6	“Gazt.”
	Mikrobiologia eta Parasitologia Orokorra	6			Fisiopatologia	6	
	Kimika Analitikoa	9			Immunologia	6	“Gazt.”
					Teknika Instrumentalak	6	
5. lauhilekoa	Farmazia-Kimika	6		6. lauhilekoa	Farmazia-Kimika	6	
	Farmakologia I	8			Farmazia Galenikoa	9	
	Mikrobiologia eta Parasitologia Deskribatzailea	9			Farmakologia II	9	
	Nutrizioa eta Bromatologia	7			1 HAUTAZKOA	6	
7. lauhilekoa	Biofarmazia eta Farmakozinetika	9		8. lauhilekoa	Farmazia Klinikoa eta Farmakoterapia	8	
	Farmakognosia	7			Gestioa, Plangintza, Legeria eta Deontologia	7	
	Farmazia-Teknologia I	8			Farmazia-Teknologia II	9	
	2 HAUTAZKOA + (Euskara 1)	6			3 HAUTAZKOA + (Euskara 2)	6	
9. lauhilekoa	Mikrobiologia eta Parasitologia Klinikoa	6	“Gazt.”	10. lauhilekoa	Praktika Tutelatuak	24	
	Osasun Publikoa	6			Gradu Amaierako Lana	6	
	Toxikologia	6	“Gazt.”				
	4 HAUTAZKOA	6					
	5 HAUTAZKOA	6					

1 HAUTAZKOA: A) Egitura-Biopatologia Orokorra
 2 HAUTAZKOA: A) Elikadura-Aholkularitza Farmazia-Bulegoan
 3 HAUTAZKOA: A) Analisi Kimiko Forentsea
 4 HAUTAZKOA: A) Dermofarmazia
 5 HAUTAZKOA: A) Farmakozaintza
 Euskara 1: Euskararen Araua eta Erabilera

B) Medikuntza Tropikala. Gaixotasun Inportatuak eta Bidaiariarena
 B) Farmazia-Laguntza
 B) Farmakoen Erabilera eta Gehiegikeriaren Neurofarmakologia
 B) Farmakoen Egitura-Determinazioa
 B) Landare Sendagarriak eta Haien Printzipio Aktiboak
 Euskara 2: Komunikazioa Euskaraz: Osasuna

GIZA ELIKADURAKO ETA DIETETIKAKO GRADUA

Farmazia Fakultatea

www.farmazia.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Titulazio honek dietista-nutrizionista izango dena (Ordenación de las Profesiones Sanitarias delako 44/2003 legearen arabera, 2003ko azaroaren 22ko E.A.O 280), prestatzen du.

“Dietista-nutrizionista” osasun arloko profesionala da, unibertsitateko tituluduna eta elikaduran, nutrizioan eta dietetikan aditu bezala legez onartua. Gaitasuna dauka pertsona edo taldeen elikaduraren maila ezberdinetan eta beraien elikadura-heziketan parte hartzeko, hau guztia pertsona edo talde osasuntzeetan eta gaixoetan, beti ere osasunaren sustapena eta babesa oinarritzat hartuta.

Horretarako, ikasleek, osasun zientzietako oinarrizko irakasgaiak ikasteaz gain, elikagaien zientzietan, nutrizio eta osasun zientzietan, osasun publiko eta talde elikaduran eta elikagaien kalitatearen gestioan heziketa sakona jasotzen dute. Honek guztiak gai egiten die bere lanbidea arlo klinikoan, talde-elikaduran, hezkuntzan, osasun publikoan eta elikadurarekin erlazioatutako ikerkuntzan, industriagintzan, garapenean eta berrikuntzan jarduteko, beti printzipio etikoak jarraituz.

SARRERAKO PROFILA

Giza Elikadurako eta Dietetikako ikaslea izango denak Matematika, Biologia eta Kimikako oinarrietan jakite maila sendoa eta ariketak ebazteko eta talde-lanerako gaitasuna eduki behar ditu. Halaber, elikadurarekin eta osasunarekin erlazioatutako arazoak eta beraien konponbide zientifiko-teknologikoak ezagutzeko jakin-min handia izan behar du eta gainera konpromiso etikoa azaldu.

IKASKETEN ANTOLAKETA

KREDITUEN BANAPENA MOTAKA ETA MAILAKA					
Kreditu mota	maila				Guztira
	1.	2.	3.	4.	
Oinarrizko irakasgaiak	42	21			63
Nahitaezkoak	18	39	48	24	129
Hautazkoak			12	6	18
Kanpo-praktikak				20	20
Gradu amaierako lana				10	10
Guztira	60	60	60	60	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Ikasketen nahitaezko eta hautazko irakasgaiak sei modulutan daude antolatuta:

Moduluaren izena	Irakasgai kopurua		Kreditu kopurua	
	Nahitaezko	Hautazko	Nahitaezko	Hautazko
Oinarrizko Heziketa	9	2	69	12
Eliagaien Zientziak	4	2	30	12
Higiene, Elikagaien Segurtasuna eta Kalitatearen Gestioa	3		24	
Elikaduraen, Dietetikaren eta Osasunaren Zientziak	7	3	51	18
Osasun Publikoa eta Talde Elikadura	3	1	18	6
Gradu Amaierako Lana eta Practicuma	2		30	
Guztira	28	8	222	48

Bukaeran aurki daiteke irakasgai guztien laburpen-taula, mailaka eta lauhilekoka banatuta. Ez da aipamenik irakasten. Nahitaezko irakasgai guztiak euskaraz eta gaztelaniaz irakasten dira, bat izan ezik (*)

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Ikastaldi edo praktika-aldi bat beste herrialde batean edo beste unibertsitate batean egitea modu egokia da ikaslearen heziketa akademiko nahiz pertsonala zabaltzeko. Hartara, Fakultateak mugikortasun-programa hauetako batean parte har dezaten sustatzen ditu ikasleak. Programa bakoitzak bere arauak ditu, eta parte-hartzaileei eskatzen zaizkien baldintzak ere programaren arabekoak dira.

SICUE/SENECA programan (Espainiako unibertsitateen arteko truke-programan), Fakultateak hainbat plaza ditu Gradu hau irakasten den Espainiako Fakultate gehienetan. ERASMUS programak, Europako unibertsitateen artean ezarritakoak, herrialde hauetan eskaintzen ditu plazak gaur egun: Italia, Norvegia, Portugal eta Erresuma Batua. Azkenik, UPV-EHU/AL programak Latinoamerikako unibertsitateetan egonaldiak egiteko aukera eskaintzen du; gaur egun Argentina, Mexiko edo Txilera joan daiteke, besteak beste.

PRAKTIKAK

Giza elikadurako eta Dietetikako Gradua lortzea helburu duten ikasketen izaera esperimental dela eta, ikasleek laborategi-, ordenagailu- eta landa-praktiken bidez egin beharko dute nahitaez irakaskuntza osoaren % 25 gutxi gorabehera.

Bestalde, ikasleek kanpo-praktikak ere egin beharko dituzte; Graduaren azken ikasturtean izango dira, hiru hilabeteko iraupena izango dute, eta bai Zentro Publikoetan (Ospitaletako Elikadura Unitateetan eta Udaletxe edo Diputazioen menpe dauden Giza -Ongizate zentroetan) eta enpresa eta instituzio pribatuetan, beti ere Giza Elikadura eta Dietetikarekin erlazionatutako arloetan.

Halaber, Gradu Amaierako Lan bat ere burutu beharko dute ikasleek, egindako kanpo-praktikekin loturikoa.

LORTUTAKO GAITASUNAK

- Elikadura-inkestak diseinatzea eta interpretatzea.
- Nutrizio-egoera ebaluatzea.
- Elikatzeko jarraibide osasuntsuak ezartzea.
- Kalitatearen gestiorako prozedura keta eskuliburuak ezartzea nutrizioarekin et atalde elikadurarekin zerikusia duten enpresa eta zerbitzuetan.
- Dieta terapeutikoak planifikatzea, ezartzea eta ebaluatzea.
- Prebentziorako eta osasunaren sustapenerako programak planifikatzea eta garatzea.
- Elikadura heziketan aritzea.
- Elikagaien arrisku kutsagarri eta alergikoa ezagutzea eta Elikagaien Segurtasunean laguntzea.
- Nutrizio gaietan ikerketa egitea, oinarritzkoa edota aplikatua.
- Komunikatzeko eta pertsonen arteko harremanak maneiatzeko gaitasuna izatea lan arlo ezberdinetan.
- Ikuspegi etikoa erabiltzea bere lan jardueran.

GRADUATU PROFILA

Graduatuak dietista-nutrizionista (Ordenación de las Profesiones Sanitarias delako 44/2003 legearen arabera, 2003ko azaroaren 22ko E.A.O 280), lanbidean aritzeko gaitasuna izanen du honako arloetan:

- Nutriziorako eta elikadurarako heziketan.
- Nutrizio klinikoan.
- Hezkuntza eta irakaskuntzan.
- Kirola, estetika eta osasunean.
- Talde-elikaduran, arlo sozialean edo komertzialean.
- I+G+B.

- Komertzializazio, komunikazio eta marketingean.
- Elikagaien industrigintzan eta ekoizpenean.
- Lehen Laguntzan.
- Prozesu eta produktuen kalitatearen gestio eta kontrolean.
- Elikagaien Segurtasunean.
- Osasun Publikoan eta erkidegoen osasunean.
- Aholkularitza legala, zientifikoa eta teknikoan.
- Administrazio Publikoan.
- Kontsumitzaileen elkarteetan.
- Garapenerako nazioarteko lankidetzan.
- Besteak (kontsultategi pribatuetan, ostalaritzan, jangeletan begirale,..

LANERATZEA

Giza Elikadura eta Dietetikako tituludunen laneratzeari buruz EGAILANek 2009an argitaratutako azterketaren arabera, nabarmentzekoak dira jarduera- eta enplegu-tasak (% 93 eta % 82, hurrenez hurren), eta langabezia-maila txikia (% 11). Ikasketak amaitzen direnetik lehenengo lanpostua lortu arte urte bete igarotzen da batz bestean. Azkenik, enplegu bideratua % 84- 87 da.

EZARPEN KRONOLOGIA

1. maila: 2010/11 ikasturtea; **2. maila:** 2011/12 ikasturtea; **3. maila eta 4.maila:** 2012/13

GIZA ELIKADURAKO ETA DIETETIKAKO GRADUAREN IKASKETA-PLANA

		ECTS kredituak			ECTS kredituak
1. lauhilekoa	Estatistika	6	2. lauhilekoa	Kimika Organikoa	6
	Biologia Zelularra eta Tisularra	6		Biokimika	6
	Kimika Orokorra eta Fisika-Kimika	6		Giza Anatomia	6
	Elikadura eta Kultura	6		Elikagaien Kimika eta Biokimika	6
	Psikologia eta Komunikazioa	6		Legeria, Deontologia eta Gestioa	6

3. lauhilekoa	Mikrobiologia eta Parasitologia Orokorra	6	4. lauhilekoa	Fisiopatologia	6
	Giza Fisiologia	9		Giza Elikadura	9
	Bromatologia	9		Sukaldaritza-Teknologia eta Elikagaien Prozesatzea	9
	Gene-Adierazpena eta Kontrol Metabolikoa	6		Immunonutrizioa eta Elikadura-Alergiak	6

5. lauhilekoa	Dietetika Orokorra eta Aplikatua	6	6. lauhilekoa	Dietetika Orokorra eta Aplikatua	6
	Talde-Elikadura	6		Elikagaien Mikrobiologia eta Higienea	6
	Elikadura-Epidemiologia	6		Osasun Publikoa	6
	Elikadura-Segurtasuna eta -Kalitatea	6		Elikadura-Segurtasuna eta -Kalitatea	6
	1 HAUTAZKOA + (Euskara 1)	6		2 HAUTAZKOA + (Euskara 2)	6

7. lauhilekoa	Dietoterapia	9	8. lauhilekoa	Praktika Tutelatuak	20
	Talde Espezifikoaren Dietetika eta Elikadura	9		Gradu Amaierako Lana	10
	Sukaldaritza Kolektiboa	6			
	3 HAUTAZKOA	6			

1 hautazkoa: A) Giza Elikadurari Aplikaturiko Anatomia

2 hautazkoa: A) Elikadura-Sistemaren Soziologia

3 hautazkoa: A) Diseinua eta Berrikuntza Elikadura-Industrian

Euskara 1: Euskararen Araua eta Erabilera

B) Landareak Giza Elikaduran

B) Kirolaren eta Garapenaren Biokimika eta Fisiologia

B) Elikadura- eta Edate-Portaeraren Fisiologia

Euskara 2: Komunikazioa Euskaraz: Osasuna

MEDIKUNTZAKO GRADUA

Medikuntza eta Odontologia Fakultatea

www.medikuntza-odontologia.leioa.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

UPV/EHU Un Medikuntzan graduatuaren tituluaren xedea da ikasleak ezagutzetan eta gaitasunetan prestatzea eta trebatzea ondorengo jarduerak egiteko:

- Gizabanakoaren eta taldearen osasuna sustatzea gure inguruko gaixotasunik garrantzitsuenak prebenituz, diagnostikatuz eta tratatuz, komunitateari eman beharreko zerbitzuak dakartzan ardurak bere gain hartuta.
- Biztanleei kalitate handiko osasun-arreta ematea, etengabeko hobekuntzara bideratuta eta osasun-baliabide mugatuak banatzeko orduan gizarte-justiziaren irizpidea arduratsu ezarrita.
- Erabakirik zuzenenak hartzean eta arazo medikoak ebaztean jarrera kritikoa izatea, ebidentzia zientifiko onenen arabera.
- Klinikari, irakaskuntzari eta ikerkuntzari eragiten dioten Osasun Zientzien ezagutza eta prozedurak zuhertasunez erabiltzea, horretarako kontuan izanik, erabakigarri diren faktore zientifiko eta biologikoez gain, osasunari eusten eta gaixotasunak tratatzen laguntzen duten faktore psikosozialak, kulturalak, historikoak eta ekonomikoak.
- Konpromisoa hartzeko etengabeko ikaskuntzarekin eta bizitza guztirako laneko hobekuntzarekin, baita klinikan, irakaskuntzan eta ikerkuntzan informazio biomedikoa egoki erabiltzearekin ere.
- Pazienteekin eta senideekin, informazio trukatu beharra izango duen beste profesionalekin eta gainerako gizartearekin eraginkorki eta enpatikoki komunikatzea.
- Lanbidean lege-arduren arabera jardutea, eta paziente guztien eta horien senideen duintasuna eta eskubideak bereziki errespetatuko dituen irizpide etikoekin jardutea, baita zirkunstantzia pertsonalak eta soziokulturalak ere.

SARRERARAKO PROFILA

Titulazioan sartzeko, egokitzen jotzen da osasun-jardueretan zerbitzatzeko bokazioko profil pertsonala edukitzea. Halaber, oso gomendagarria da sartu nahi duenak osasun-zientziekin zerikusia duten gaien ezagutza zabala izatea eta ingelesez ongi jakitea, irakurri eta idazteko bai, behintzat.

IKASKETEN ANTOLAKETA

Iraupena: **6 ikasturte** / ECTS kreditu-kopurua: **360**

Oinarrizko trebakuntza: 60 ECTS

Nahitaezkoak: 276 ECTS

Aukerakoak: 18 ECTS

Gradu-amaierako lana: 6 ECTS

Kredituak guztira: 360 ECTS

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Medikuntzako Gradua 6 modulutan dago antolatuta:

M01: Giza Gorputzaren morfologia, egitura eta funtzioa: 82 KR

M02: Gizarte Medikuntza, Komunikazio gaitasunak eta Ikerkuntzaren hastapena: 42 KR

M03: Giza Trebakuntza Klinikoa: 105 KR

M04: Prozedura Diagnostikoak eta Terapeutikoak: 53 KR

M05: Praktika Zainduak eta Gradu Amaierako Lana: 60 KR.

M06: Hautazkotasuna: 48

Lehen maila:

- **Oinarrizko irakasgaiak** (guztiak ere 6 ECTSrekin). Irakasgaiak: Biologia Zelularra; Oinarrizko Biokimika; Genetika eta Garapenaren Biologia; Fisiologia; Bioestatistika; Dokumentazioa, Medikuntzaren Historia, Teoria eta Metodoa; eta Psikologia.
- **1 modulua:** Anatomia I (6 ECTS) eta Anatomia II (6 ECTS); Biokimika Medikoa (6 ECTS).

Bigarren maila:

- **Oinarrizko irakasgaiak.** Irakasgaiak: Oinarrizko Histologia Medikoa (6 ECTS); Ikerketa Biomedikora Sarrera (6 ECTS).
- **1 modulua:** Anatomia III (6 ECTS) eta Anatomia IV (8 ECTS); Fisiologia Medikoa I (8 ECTS) eta Fisiologia Medikoa II (6 ECTS); Histologia Mediko Berezia (6 ECTS).
- **4 modulua:** Mikrobiologia eta Immunologia Medikoak (8 ECTS)
- **Aukerakoak:** irakasgai bat aukerakoa, hauetatik hautatzeko (guztiak ere 6 ECTSkoak): Euskararen arauak eta erabilera; Jarduera Fisikoaren era Kirolaren Medikuntza eta Fisiologia; eta Enbriologia Medikoa.

Hirugarren maila:

- **Oinarrizko irakasgaiak** (6 ECTS). Irakasgaiak: Farmakologia Medikoaren Oinarriak.
- **2 modulua:** Ikerketa Proiektua (6 ECTS). Etika Medikoa, Komunikazioa eta Harreman Klinikoa (6 ECTS).
- **3 modulua:** Mikrobiologia Klinikoa eta Infekzioa (6 ECTS) eta Patologia Orokorra (9 ECTS).
- **4 modulua:** Kirurgiaren Oinarriak (9 ECTS). Anatomia Patologiko Orokorra (6 ECTS).
- **Aukerakoak:** ikasleak 2 aukerako irakasgai hautatu beharko ditu hauetatik (guztiak ere 6 ECTSkoak): Komunikazioa Euskaraz: Osasungintzaren Alorra; Zainketa Perioperatorioak; Droga Mendekotasuna; Genetika Medikoa; eta Txertoak.

Laugarren maila:

- **3 modulua:** Otorrinolaringologia (6 ECTS); Oftalmologia (6 ECTS); eta Dermatologia (6 ECTS). Patologia eta Klinika Medikoa I (12 ECTS). Kirurgia I (12 ECTS). Psikiatria (6 ECTS).
- **4 modulua:** Erradiologia eta Medikuntza Fisikoa (6 ECTS) eta Anatomia Patologiko Berezia (6 ECTS).

Bosgarren maila:

- **2 modulua:** Medikuntza Prebentiboa eta Osasun Publikoa eta Komunitarioa (6 ECTS) eta Lege eta Auzitegi Medikuntza (6 ECTS).
- **3 modulua:** Pediatria (9 ECTS); eta Obstetria eta Ginekologia (9 ECTS). Patologia eta Klinika Medikoa II (9 ECTS). Kirurgia II (9 ECTS).
- **4 modulua:** Erradiologia eta Medikuntza Fisikoa II (6 ECTS) eta Farmakologia Mediko Aplikatuak (6 ECTS).

Seigarren maila:

- **Practicuma** (54 ECTS): errotazio bidezko praktika medikoak hainbat ospitale-zerbitzutan eta osasun-zentrotan, ondorengo hauetan trebatuz: Patologia Medikoa (12 ECTS) eta Kirurgikoa (12 ECTS), Lehen Mailako Arreta (6 ECTS), Pediatria (6 ECTS), Ginekologia eta Obstetria (6 ECTS), Oftalmologia, Otorrinolaringologia, Dermatologia (hirurek ere: 6 ECTS), eta Psikiatria (6 ECTS).
- **Gradu-amaierako lana** (6 ECTS). Titulazioko edozein modulutako edo gaitan oinarrizko gaitasunetan, gaitasun akademikoetan eta klinikoetan trebakuntza, nahitaezko gaitasunen osagarritasuna bermatuko duena.
Gradu-amaierako lanaren xedea da gaitasun kliniko, zientifiko edo aurreprofesionalak trebakuntza osatzea, titulazioko edozein gaitan, eta 6. mailan 6 ECTS izango ditu; ikasleak hainbat lekutan egin ahal izango du: Fakultatean bertan, Graduaren irakaskuntzan esku hartzen duten beste erakunde laguntzaileetan edo beste batzuetan, baina betiere Graduan irakasten duen irakasle batek zainduta. Gradu-amaierako lana euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango da, bi hizkuntzetako edozeinetan.

Titulazioan zehar, maila bereko modulu eta irakasgaiak koordinatuta egongo dira eta horretaz arduratuko dira maila bakoitzeko koordinatzaileak; halaber, maila desberdinetako irakasgaiak ere koordinatu egingo dira eta horren ardura dekanotaldearen gain egongo da.

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Medikuntza eta Odontologia Fakultateak Truke Akademikoko programa hauetan hartzen du parte: Sicue/Séneca, Erasmus, EHU-América Latina eta Beste Norakoak.

Sicue/Séneca Programa: Estatuko unibertsitateetako ikasleen arteko mugikortasuna errazten du. Gure ikastegiak bi aldeko kontratuak dauzka Medikuntzako 23 fakultaterekin eta 35 plaza eskaintzen ditu.

Sócrates Erasmus programa Europako ikasleen mugikortasunerako. Fakultateak bi aldeko kontratuak dauzka Medikuntzako 15 fakultaterekin eta guztira 35 plaza eskaintzen dizkie Medikuntzako ikasleei.

UPV/EHU-AL programa ikasleak Latinoamerikan mugitzeko da, eta hitzarmenak daude sinatuta Mexiko, Txile eta Argentinarekin; guztira 6 plaza Medikuntzako ikasleentzat.

Informazio gehiagorako, sartu hemen: <http://www.relaciones-internacionales.ehu.es/p274-home/eu/>

PRAKTIKAK

- **Mintegiak-tutoretzak:** irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarreragina. Besteka beste, hauetarako erabiltzen dira: lanak aurkezteko, kasuak aztertzeko, balizko egoerak ebazteko, arazoak konpontzeko, gai teoriko errazak azaltzeko...
- **Ordenagailu-praktikak:** ordenagailua erabiltzea beharrezkoa duen jarduera praktikoa egiten du ikasle batek, irakasle batek zuzenduta. Tutoretza-jarduera litzateke.
- **Laborategiko praktikak:** ikasleak entseguak egiten ditu, esperimendu egiten du, neurketak egiten ditu, etab., unibertsitate-irakasleen aurrean.
- **Ikasgelako praktikak:** azalpen edo ebazpen praktikoa egiten da ikasle-talde baten aurrean, erakusteko edo argitzeko. Helburu nagusia da klase magistraletan azaldutako teoriaren alderdi praktikoa osatzea, eta balio dute taldeak koordinatzeko, asteko lanak banatzeko eta lanak egiteko jarraibideak emateko.
- **Praktika klinikoak:** irakaskuntza-saio hauen helburua da ikasleek teoriako abilezia, jarrera edo alderdi aplikatuak ikastea ikasle errealean edo itxurazkoen aurrean, abilezien laborategia edo, oro har, talde txikiak behar dituztenak.

Helburu praktikoa betetzen direla bermatzeko amaierako ebaluazioa eta ebaluazio jarraia daude.

LORTUTAKO GAITASUNAK

Jarraian datozen gaitasunak zabalago daude azalduta eta zehaztuta ECI/332/2008 Ministro Aginduan, eta, beraz, laburpena da.

Laburbilduz, medikuntzako oinarrizko trebakuntzak bermatu egin beharko du interesatuak ondorengo ezagutzak eta gaitasunak bereganatu dituela:

- Medikuntzaren oinarri diren zientziak behar bezala ezagutzea, baita metodo zientifikoak ondo ulertzea ere, horien barne direlarik funtzio biologikoaren neurri/neurketa-printzipioak, zientifikoki egiaztatutako gertaeren ebaluazioa eta datuen azterketa.
- Gizakien egitura, funtzioa keta jokaera behar bezala ezagutzea, osasuntsuena zein gaixoenena, baita gizakiaren osasun-egoeraren eta inguru fisiko eta sozialaren arteko harremanarena ere;
- Materia eta praktika klinikoaren behar bezalako ezagutza; horri esker, ikuspegi koherentea izango du ondorengo hauei dagokikenez: gaixotasun mental eta fisikoak, medikuntza bere alderdi prebentibo, diagnostiko eta terapeutikoan, baita giza ugalketarena ere.
- Behar bezalako esperientzia klinikoak, behar bezala ikuskatuta ospitaleetan lortua.

GRADUATU PROFILA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean Medikuntzan graduatzen dena gai izango da medikuntzan oro har jarduteko eta gerora graduatuondoko trebakuntza klinikora eta ikerkuntzakora iristeko. Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatean Medikuntzan graduatua titulua lortzen duten etorkizuneko profesionalek gain izan beharko dute osasuna sustatu, mantendu eta berreskuratzera bideratutako jarduerako planifikatzeko, gauzatzeko eta adierazteko, kultura-, gizarte- eta hizkuntza-eragin ugariko mundu honetan. Helburu hori lortzeko, gerora profesionala izango denak aditu aizan behar du gaixotasunak prebenitzen eta gaixoak disgnostikatzen eta tratatzen.

EZARPENAREN KRONOLOGIA

- 1. maila:** 2010-2011
- 2. maila:** 2011-2012
- 3. maila:** 2012-2013
- 4. maila:** 2013-2014
- 5. maila:** 2014-2015
- 6. maila:** 2015-2016

ODONTOLOGIAKO GRADUA

Medikuntza eta Odontologia Fakultatea

www.medikuntza-odontologia.leioa.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

UPV/EHUko Odontologiako Graduatua tituluaren helburua da ikaslea hainbat ezagutza eta gaitasunetan trebatzea, ondorengo jarduerak egiteko:

- Historia kliniko oso bat egitea, pazientearen aho-, hortz- eta mediku-egoera adieraziz, eta historian, azterketa fisikoan eta behar diren proba osagarrietan oinarrituta odontologiako diagnostiko-iritzia egitea.
- Pazientearen osasuna berreskuratzeko terapeutikarik egokiena planifikatzea eta gauzatzea, pazientearen edozein adinetakoa izanda ere, baita eskakizun bereziak baldin baditu ere, praktika odontologikoan aurkitutako larrialdi mediko nagusiak barne direla eta norberaren mugak onartuta.
- Gure inguruko aho-gaixotasun nabarmenenak prebenitzea eta banakakoaren eta taldearen aho-osasuna bultzatzea.
- Kalitate handiko arreta ematea osasun-zerbitzuen erabiltzaile guztiei, eta batik bat pazienteari, komunitatera eta etengabeko hobekuntzara bideratuta, eta osasun-baliabideen erabileran eta banaketan eraginkortasun-irizpidea arduratsu erabilita.
- Odontologiako praktika eta ikerketari eragiten dieten zientzia biomedikoen ezagutza, printzipio eta prozedurak behar bezala erabiltzea, jarrera kritikoa erabilita erabakiak hartu ahal izateko, iritzia emateko eta arazo klinikoak ebazteko, zientzia-ebidentzia onenei eta hainbat faktoreri (psikosozialei, kulturei, etikoei eta ekonomikoei) kasu eginez.
- Laneko bizitza osoan iraungo duen etengabeko ikasketa eta trebakuntzarako konpromisoa bere egitea, eta klinikan eta ikerketan informazio biomedikoa kritikoki eta eraginkorki erabiltzea.
- Pazienteekin eta inguruarekin eraginkorki eta enpatikoki komunikatzea ahoz zein idatziz, baita informazioa trukatu behar duen gainerako profesionalekin ere, talde-lanean arituz jarduera profesionala optimizatzeko.
- Lege-arduren eta irizpide etiko batzuen arabera aritzea lanbidean, batik bat paziente guztien eta horien inguruaren duintasuna eta eskubideak errespetatuko dituztenak, baita zirkunstantzia pertsonalak eta soziokulturalak ere.

SARRERARAKO PROFILA

Titulazioan sartzeko, egokitzat jotzen da osasun-jardueretan aritzeko bokazioko profil pertsonala edukitzea. Halaber, oso gomendagarria da sartu nahi duenak esku-abilezia handia izatea, odontologo lanbideak horixe eskatzen baitu, eta osasun-zientziekin zerikusia duten gaien eta ingelesaren ezagutza zabala izatea ere bai.

IKASKETEN ANTOLAKETA

Iraupena: 5 maila / **ECTS kreditu-kopurua:** 300

Oinarrizko trebakuntza: 66

Nahitaezkoak: 210

Aukerakoak: 18

Gradu-amaierako lana: 6

Kredituak guztira: 300

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Odontologiako Gradua 5 modulutan dago antolatuta:

M01: Oinarrizko Zientzia biomedikoak: 48 KR

M02: Odontologiara Sarrera: 45 KR

M03: Patologia eta Terapeutika Mediko-Kirurgiko Orokorra: 24 KR

M04: Patologia eta terapeutika Odontologikoa: 132 KR

M05: Praktika Zainduak eta Gradu Amaiera: 33 KR

Lehen maila:

- **Oinarrizko gaiak.** Irakasgaiak: Biologia Zelularra (6 ECTS), Giza Histologia (6 ECTS), Biokimika (6 ECTS), Mikrobiologia eta Immunologia (9 ECTS), Fisiologia eta Nutrizioa (9 ECTS), Ergonomia eta Laborategira eta Odontologiako Klinikara Sarrera (6 ECTS) eta Epidemiologia eta Osasun Publikoa (6 ECTS).
- **1 modulu:** Irakasgaiak: Anatomia I (6 ECTS) eta Anatomia II (6 ECTS)

Bigarren maila:

- **Oinarrizko gaiak.** Irakasgaiak: Psikologia eta Komunikazioa (6 ECTS)
- **2 modulu:** Irakasgaiak: Odontologia Prebentiboa eta komunitarioa (9 ECTS), Erradiologia eta medikuntza fisikoa (6 ECTS).
- **3 modulu:** Irakasgaiak: Helduaren eta Haurren Patologia Medikoa (9 ECTS) eta Patologia kirurgikoa (9 ECTS).
- **4 modulu:** Irakasgaiak: Hortz-protesia I (9 ECTS), Aho Patologia eta Medikuntza I (6 ECTS).
- **Aukerakoak.** Bat aukeratu behar da ondorengo irakasgaietatik: Odontologia Lanbidea Gestionatzea eta Bertan Jardutea (6 ECTS) eta Euskararen Arauak eta Erabilera (6 ECTS).
UPV/EHUko Araudian ezarrita dagoenari jarraiki, aukera dago maila honetan 6 ECTS beste bide batzuetatik baliozkotzeko: batetik, genero-ikuspegiarekin zerikusia daukaten jarduerengatik; bestetik, UPV/EHUren plan estrategikoko helburuak betetzen laguntzen duten jarduerengatik eta jarrera ekintzailea bultzatzen duten, unibertsitateko kultura-, kirol-, elkartasun- eta lankidetzajardueretan eta ikasle-ordezkaritzakoetan parte hartzeko jarduerengatik

Hirugarren maila:

- **Oinarrizko gaiak.** Irakasgaiak: Odontologiako Biomaterialak (6 ECTS) eta Farmakologia Orokorra eta Klinikoa (6 ECTS).
- **2 modulu:** Irakasgaiak: Lege eta Auzitegi Odontologia (6 ECTS).
- **4 modulu:** Irakasgaiak: Hortz-patologia eta terapeutika (12 ECTS) eta Hortz-protesia II (12 ECTS), Ahoko kirurgia I (6 ECTS), Ahoko Kirurgia II (6 ECTS) eta Periodontzia I (6 ECTS).

Laugarren maila:

- **4 modulu:** Irakasgaiak: Odontopediatria (12 ECTS), Hortzetako Patologia eta Terapeutika II (9 ECTS), Hortz-protesiak III (12 ECTS) eta Ortodontzia I (6 ECTS).
- **Aukerakoak:** Irakasgai bat aukeratu behar hauetatik: Komunikazioa Euskaraz (6 ECTS), Patologia Sistemikoaren Ondorioak Ahoan (6 ECTS) eta Min Orofazialera sarrera (6 ECTS)

Bosgarren maila:

- **4 modulu:** Ortodontzia II (9 ECTS), Min Orofaziala eta Tenporo-maisalezurreko Arazoak (6 ECTS), Farmakologia Aplikatua eta Larrialdiak Odontologian (6 ECTS)
- **5 modulu:** Helduen Praktika Integratua I (9 ECTS), Helduen Praktika Integratua II (9 ECTS), Haurren practicum integratua (9 ECTS)
- **Aukerakoak:** Irakasgai bat aukeratu behar da hauetatik: Aurpegi-masailetakoa Kirurgia (6 ECTS), Inplantologia (6 ECTS) eta Gorputzeko Minaren Identifikazioa eta Balorazioa (6 ECTS)
- **Gradu-amaierako lana** (6 ECTS): Titulazioko edozein modulutako edo gaitako gaitasunetan (oinarrizkoetan, akademikoetan eta klinikoetan) trebatzea, nahitaezko gaitasunak osagarriak izango direla bermatzeko. Gradu-amaierako lana euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango da, bi hizkuntzetako edozeinetan.

Titulazioan zehar, maila bereko modulu eta irakasgaiak koordinatuta egongo dira eta horretaz arduratuko dira maila bakoitzeko koordinatzaileak; halaber, maila desberdinetako irakasgaiak ere koordinatu egingo dira eta horren ardura dekanotaldearen gain egongo da.

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Medikuntza eta Odontologia Fakultateak Truke Akademikoko programa hauetan hartzen du parte: Sicue/Séneca, Erasmus, EHU-América Latina eta Beste Norakoak.

Sicue/Séneca Programa: Estatuko unibertsitateetako ikasleen arteko mugikortasuna errazten du. Gure ikastegiak bi aldeko kontratuak dauzka Odontologiako 6 fakultaterekin eta 9 plaza eskaintzen ditu.

Sócrates Erasmus programa Europako ikasleen mugikortasunerako. Fakultateak bi aldeko kontratuak dauzka 4 unibertsitaterekin eta guztira 10 plaza eskaintzen dizkie Odontologiako ikasleei.

UPV/EHU-AL programaren xedea da ikasleak Latinoamerikan mugitzea, eta hitzarmenak daude sinatuta Mexikorekin; guztira 2 plaza Odontologiako ikasleentzat.

Informazio gehiagorako, sartu hemen: <http://www.relaciones-internacionales.ehu.es/p274-home/eu/>

PRAKTIKAK

- **Mintegiak-tutoretzak:** irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarreragina. Besteak beste, hauetarako erabiltzen dira: lanak aurkezteko, kasuak aztertzeko, balizko egoerak ebazteko, arazoak konpontzeko, gai teoriko errazak azaltzeko...
- **Ordenagailu-praktikak:** ordenagailua erabiltzea beharrezkoa duen jarduera praktiko bat egiten du ikasle batek, irakasle batek zuzenduta. Tutoretza-jarduera litzateke.
- **Laborategiko praktikak:** unibertsitate-irakasleen aurrean, ikasleak entseguak egiten ditu, esperimentatu egiten du, neurketak egiten ditu, etab.
- **Ikasgelako praktikak:** azalpen edo ebazpen praktikoa egiten da ikasle-talde baten aurrean, zerbait erakusteko edo argitzeko. Helburu nagusia da klase magistraletan azaldutako teoriaren alderdi praktikoa osatzea, eta balio dute taldeak koordinatzeko, asteko lanak banatzeko eta lanak egiteko jarraibideak emateko.
- **Praktika klinikoak:** irakaskuntza-saio hauen helburua da ikasleek teoriako abilezia, jarrera edo alderdi aplikatuak ikastea ikasle errealean edo itxurazkoen aurrean, abilezien laborategian edo, oro har, talde txikietan.

Helburu praktikoak betetzen direla bermatzeko, amaierako ebaluazioa eta ebaluazio jarraitua daude.

LORTUTAKO GAITASUNAK

Jarraian datozen gaitasunak zabalago daude azalduta eta zehaztuta CIN/2136/2008 Ministro Aginduan, eta, beraz, ondoren datorrena laburpena besterik ez da.

Odontologiako Graduak bermatuko du profesionalak behar bezalako ezagutzak, abileziak eta gaitasunak bereganatu dituela ondorengoak egiteko:

- Une oro pazienteen on beharrez aritzeko betebeharra aitortzea eta onartzea, indarrean dagoen osasun-araudiaren arabera.
- Odontologiako praktika orokorra bakarka edo independente egitea, inork gainbegiratu beharrik gabe. Horrekin batera, gai izan behar dute beraien mugak aitortzeko eta muga horiek gainditzen dituzten egoeren aurrean, gai izan behar dute aholkua eskatzeko edo pazienteak beste profesional batengana bideratzeko.
- Pazienteekin, kideekin eta osasuneko beste profesionalekin elkarrekintza eraginkorra eta egokia erraztea.
- Bizitzan zehar luzatuko den ikasketa bultzatzea, eraginkorki, garapen profesionala ahalbidetzeko.

GRADUATU PROFILA

Odontologiako Graduaren helburu nagusia da ikasleak gaitzea odontologia-lanbidean aritzeko, eta hori lortutakoan, geroko graduondoko trebakuntzara eta ikerkuntzara iristeko. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean Odontologian graduatzen dena gaituta egongo da odontologo profesional gisa aritzeko; horretarako, behar bezalako ezagutza, abilezia, jarrera eta gaitasunak izango ditu, gizartearen osasun-eskakizunak aseta gizartearen zerbitzura aritzeko, prebentzioan ez ezik, diagnostikoan eta tratamenduan ere bai, etikoki eta eraginkortasunez eta segurtasunez. Profesional honek aintzat hartu behar ditu garapen premiaren eta bizitza osoan zeharreko etengabeko trebakuntzaren premia, gai izan behar du ezagutzan eta teknologian izandako aurrerapenez eraginkorki baliatzeko eta ulertu egin behar du erabaki terapeutikoak hartzean pazienteak egon behar duela erdigunean.

EZARTZEKO KRONOLOGIA

- 1. maila:** 2010-2011
- 2. maila:** 2011-2012
- 3. maila:** 2012-2013
- 4. maila:** 2013-2014
- 5. maila:** 2014-2015

PSIKOLOGÍAKO GRADUA

Psikologia Fakultatea

www.psikologia.ehu.es

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Psikologia Gradua tituluaren helburu nagusia psikologia arloko profesionalak prestatzea da, beharrezko ezagutza zientifikoak izan ditzaten giza jokabidea ulertu, interpretatu, aztertu eta azaltzeko, eta oinarrizko trebetasunak izan ditzaten gizabanakoaren eta gizartearen arloetan esku hartu eta ebaluatzeko, bizi-zikloan zehar, osasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko xedearekin.

SARRERAKO PROFILA

Psikologia ikasi nahi duen ikasleak jakin-min berezia izan behar du gizakia eta gizarte-errealitate askotarikoa aztertzeko. Trebea izan behar du pertsonen arteko harremanetan eta autokritikarako gaitasuna izan behar du. Era berean, balio handikoak izango zaizkio ere antolakuntzarako, plangintzarako, kudeaketarako eta eguneroko lanean erabakiak hartzeko trebetasunak. Gainera, gai izan behar du ondo hitz egin eta idazteko EAEko hizkuntza ofizialetako batean gutxienez, eta oinarrizko maila izan beharko du ingelesean.

IKASKETEN ANTOLAKETA

Iraupena eta ECTS kredituen kopurua: 4 urte, 240 ECTS.

Oinarrizko prestakuntza: 60 ECTS

Derrigorrezkoak: 114 ECTS

Hautazkoak: 48 ECTS

Kanpoko praktikak: 12 ECTS

Gradu Amaierako Lana: 6 ECTS

Kredituak guztira: 240 ECTS

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Derrigorrezko eta oinarrizko 174 kredituak honako modulu hauen arabera egituratzen dira ikasgaietan:

Psikologia: historia, zientzia eta lanbidea

Irakasgaiak: Psikologiaren Historia. Psikologia Dinamikoa.

Prozesu psikologikoak

Irakasgaiak: Arreta, Pertzepzioa eta Motibazioa. Ikaskuntza, Jokabidea eta Kognizioa. Emozioa eta Gaitasun Sozio-emozionalak. Oroimena eta Erabakiak hartzea. Pentsamendua eta Lengoia.

Jokabidearen oinarri biologikoak

Irakasgaiak: Jokabide Neurozientziaren Oinarriak. Eboluzioa eta Jokabidea. Psikologia Fisiologikoa. Neuropsikologia eta Psikofarmakologiaren Oinarriak.

Jokabidearen gizarte-oinarriak

Irakasgaiak: Gizarte Psikologia. Taldeen Psikologia. Antolakuntzen eta Lanaren Psikologia. Gatazken Azterketa eta Konponketa, eta Lankidetzarako Estrategiak.

Bizi-zikloaren eta heziketaren psikologia

Irakasgaiak: Garapenaren Psikologia I. Garapenaren Psikologia II. Heziketaren Psikologia.

Ikerkuntza-metodoak, diseinua eta teknikak psikologian

Irakasgaiak: Metodologia Psikologian. Datuen analisia eta Diseinuak. Metodo ez-esperimentalak. Diseinuak eta Datuen analisia: Metodo esperimentalak.

Giza dibertsitatea, nortasuna eta psikopatologia

Irakasgaiak: Nortasunaren Psikologia. Psikopatologia.

Ebaluazio eta diagnostiko psikologikoa

Irakasgaiak: Psikometria. Ebaluazio eta Diagnostiko Psikologikoak. Neuropsikologia eta Psikofarmakologiaren Oinarriak. Taldeen Psikologia. Antolakuntzen eta Lanaren Psikologia. Prebentzioa eta Esku-hartzea Hezkuntza-testuinguruetan.

Esku-hartze eta tratamendu psikologikoa

Irakasgaiak: Tratamendu Psikologikoak. Prebentzioa eta Esku-hartzea Hezkuntza-testuinguruetan. Osasunaren Psikologia.

42 kreditu dira hautazkoak eta bi aukera ditu ikasleak: nahi dituen irakasgaiak aukeratzea eskaintzen zaizkion irakasgai guztien artean, edo proposatzen diren lau **MINOR edo ibilbideetako bat** egitea. Ibilbide horiek Psikologia arloko lau lanbide-esparru garrantzitsuenei dagozkie:

- Psikologia Klinikoa eta Osasunaren Psikologia;
- Esku-hartze Psikosoziala;
- Heziketaren Psikologia;
- Lanaren, Giza Baliabideen eta Antolakuntzen Psikologia.

Ikasketa hauek guztiak euskaraz nahiz gaztelaniaz egin daitezke. Gainera, Psikologia Fakultateak eta haren sailek ingelesez ikasteko aukera ere eskaini nahi dute, eta irakasle akreditatuak dituzte horretarako, indarrean dagoen ikasketa-planak adierazitako moduan.

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Ps0.5773(t)-(t) A

LORTUTAKO GAITASUNAK

- Oinarrizko prozesu psikologikoen oinarrian dauden legeak eta printzipioak, haien oinarri biologiko, sozial eta kulturalak, eta haien garapena bizi-zikloan zehar ulertzea, gizakiaren oinarri psikologikoa osatzen duten elementuak identifikatu eta integratzeko.
- Psikologiako eredu teorikoen funtzioak, ezaugarriak eta mugak ezagutzea, eta haien ekarpenak eta mugak kritikoki baloratzeko kapaz izatea.
- Psikologiaren aplikazio-eremuak ezagutzea eta beharrezko ezagutzak edukitzea gizabanako, talde, komunitate eta antolakuntzen osasuna eta bizi-kalitatea sustatzeko, hainbat testuingurutan: hezkuntzan, lan- eta antolakuntza-esparruan eta komunitatean.
- Datu garrantzitsuak lortzeko eta ebaluatzeko gai izatea, datu koantitatiboak eta/edo koantitatiboak aztertu eta ebaluatzeko, emaitzak interpretatzeko eta txosten psikologiko bat zuzen lantzeko, modu egokian aurkezteko ahoz nahiz idatziz.
- Pertsonen, taldeen eta taldeen arteko desberdintasunak, arazoak eta premiak identifikatzeko gai izatea, eta esku-hartzeak nola planifikatu eta ebaluatu behar diren jakitea.
- Psikologiarekin erlazioatutako informazioa bilatu, kudeatu, eguneratu, hautatu, aztertu eta laburtzeko gai izatea, informazio- eta dokumentazio-iturri espezializatuetatik abiatuta.
- Harremanetan jartzeko eta komunikatzeko gaitasuna izatea, maila pertsonal, profesional eta zientifikoan, eta bakarka nahiz taldean lan egiteko gai izatea, erantzukizunak onartuz eta norberaren lana kritikoki baloratuz.
- Psikologoaren lan profesionala erregulatzen duen legedia ezagutzea eta printzipio etikoak eta kode deontologikoa aplikatzeko gai izatea.
- Era autonomoan ikasteko gai izatea eta etengabeko ikaskuntzaren garrantziaz ohartzea, lanbidearen mesederako diren gaitasunak eta ezagutzak eguneratzeko, eta ezagutza psikologikoari ekarpena egiteko.

GRADUATU PROFILA

UPV/EHUK eskaintzen duen Psikologiako Gradua tituluaren helburua profesionalak prestatzea da, maila orokorrean eta espezializaziorik gabe. Profesional horiek Psikologiaren eredu teorikoak ezagutu behar dituzte sakon, haien ekarpenak eta mugak kontuan hartuz, eta zer aplikazio-eremu dituen jakin behar dute, hainbat mailatan (gizabanakoa, taldea, komunitatea eta antolakuntza) eta testuingurutan (klinikoa, hezkuntzakoa, antolakuntzakoa eta komunitarioa) jarduteko gai izan daitezen, osasuna eta bizi-kalitatea sustatzeko helburuarekin.

Helburu hori lortzeko, gai izan behar dute (bakarka edo taldean lan eginez) aipatutako maila eta testuinguruetan arazoak identifikatzeko, esku-hartze eraginkor eta egokien bidez arazo horiei aurre egiteko eta, azkenik, etengabeko prestakuntza onartzeko, beren ezagutzak gizarte aldakor eta anitz batera egokitzeko xedearekin.

Hori guztia psikologoaren lanbidearen printzipio etiko eta deontologikoekiko konpromisotik abiatuta.

Graduak, hortaz, psikologoaren oinarrizko gaitasun profesionalak ematen ditu, goi-mailako titulu ofizialek gaitasun espezifikoko edo erregulatutako espezialitateak ezartzen dituzten esparruetan izan ezik.

LANERATZEA

Psikologia Fakultateko lizentziadunen %75ek, gutxi gorabehera, unibertsitate-prestakuntzaren mailari dagokion lan bat lortzen dute, eta tituludunen %50 Psikologiarekin zerikusia duten lanpostuetan daude. Enplegu-tasa %86koa da. (Datuak: Egailan, 2002, 2003 eta 2004ko promozioak, 2007, 2008 eta 2009an argitaratuak).

EZARPEN KRONOLOGIA

2010-2011 ikasturtea: Psikologiako Gradua tituluaren 1. eta 2. ikasturteak ezarriko dira batera.

2011-2012 ikasturtea: 3. ikasturtea ezarriko da.

2012-2013 ikasturtea: 4. ikasturtea ezarriko da.